

04/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

2023KO APIRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Saioa Tolosa Zubelzu (EH Bildu taldea)
Esther Iztueta Zelaia (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Rafael Uribarren Axpe (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Anoetako Udaletxean, 2023ko apirilaren 27an, arratsaldeko 18:04etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BI BILKUREI DAGOZKIEN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta, 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko Osoko Bilkuraren aktaren gainean, azaldu du ez dagoela ados bertan jasotakoarekin, zehazki, gai-zerrendako 10. puntuari buruz jasotakoarekin. EH Bilduko kideak ez daude ados Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko martxoaren 27an Alkatetzaren 2023ko martxoaren 1eko Ebazpenaren aurka egindako txostenean jasotako edukiarekin. Dekretu hori hitzez hitz eta komatxo artean transkribatu da aktaren hamargarren puntuan, eta, horregatik, aktatik hitzez hitzeko transkripzioa kentzeko eskatu dute. Idazkari-kontuhartzaileak berretsi egin du 2023ko martxoaren 30eko osoko bilkurako gai-zerrendako hamargarren puntuaren gai den eragozpen-txostenean jasotako edukia, eta txostenaren edukiarekin ados ez egotekotan, kontrako alegazioekin dagokion idatzia aurkezteko proposamena

egin du. Hala ere, bertaratuen gehiengoak eskatuta, 2023ko martxoaren 30eko osoko bilkuraren aktaren hitzez hitzeko transkripzioa ezabatzea onartu du.

2023ko apirilaren 19an egindako premiazko ezohiko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu dute.

2.- BAKE-EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA HAUTATZEKO PROPOSAMENA.

Ikusita Anoetako udalerriko Bake Epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko gauzaturiko espedientea.

Ikusita Anoetako udalerriko Bake Epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko prozedurarako deialdia 2023ko martxoaren 27an argitaratu zela 59. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hamabost lanegunetako gehienezkoa epea zabalduz interesdunek idatziz eskaera aurkeztu zezaten udaletxeko erregistroan.

Ikusita, aurreko puntuan adierazitako epean, pertsona bakarra aurkeztu dela:

- Iker Echeverria Amondarain.

Kontuan izanda Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko apirilaren 25ean egindako txostena.

Aztertuta parte-hartzaileak aurkeztutako gainerako dokumentazioa.

Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Iker Echeverria Amondaraini Anoetako udalerriko Bake Epaile titularren kargua betetzeko proposamena egitea.

BIGARRENA. Iker Echeverria Amondaraini jakinaraztea proposaturiko kargua espresuki onartu beharko duela, eta kargu judizialerako ezgaitasun edota bateraezintasun arrazoiren batean sartuta ez egotearen deklarazioa ere aurkeztu beharko duela, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Legearen 102, 302, 303 eta 289 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaileari hartutako erabakia helaraztea, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretoari aurkezteko.

3.- ANOETAKO A-14 LASARBE SEKTOREKO RA-B3 PARTZELAN 40 ETXEBIZITZA ETA GARAJEEI ESLEITUKO ZAIEN BEHIN BETIKO HELBIDEA ONESTEKO PROPOSAMENA, CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.K ESKATUTA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Construcciones Aburuza, S.L. enpresak 2023ko apirilaren 11n, 531. sarrera-erregistro zenbakiarekin, aurkeztutako eskaria azaldu du. Bertan, “Anoetako A-14 Lasarbe sektoreko RA-B3 partzelan 40 etxebizitza eta garajeri esleituko zaion behin betiko helbidea jakinaraztea” eskatzen zen.



ANOETAKO
UDALA

Gai hori 2020ko irailaren 23ko Hirigintzako Batzordean jorratu zen, gai zerrendaren lehenengo puntuan, non honakoa jasotzen zen:

“... ”

Proposamena: Lasarbe 5 bezala izendatzea. (Eranskina plano)

Orain arte inguruan egin diren eraikinak Iturtxulo izena izan dute (1,2,3,4,5,6) eta Babes Ofizialeko eraikina Lasarbe 1 da, zenbaki bakarra dago kale horretan. Inguru horrek Lasarbe izena duenez, izena mantentzea erabaki da eta oraingo eraikinari 5. zenbakia jartzeari aurreikusita ze eraikin egingo diren eta tartean zenbat zenbaki utzi behar diren.

Alde: 3 (2 EH BILDU + 1 EAJ)

Kontra: 0

Abstentzia: 0

...”.

Bestalde, udal Arkitekto Teknikoak, 2023ko apirilaren 18an, txostena egin du ondorengo ondorioak jasota:

“... ”

Hori dena kontuan hartuta Lasarbeko A-14 sektoreko RA.B3 partzelan eraikitzen ari diren 40 etxebizitza, lokalak, garajeak eta trastelekuak dituen eraikinari LASARBE 3 eta 4 helbidea ezartzea proposatzen dut, ezkaratza bati 3 zenbakia jarriaz eta besteari 4 zenbakia ondorengo krokisaren arabera (...).

...”.

Behin Idazkariak aurrekoak azaltzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Lasarbeko A-14 sektoreko RA.B3 partzelan eraikitzen ari diren 40 etxebizitza, lokalak, garajeak eta trastelekuak dituen eraikinari LASARBE 3 eta 4 helbidea ezartzea, ezkaratza bati 3 zenbakia jarriaz eta besteari 4 zenbakia, udal Arkitekto teknikoak bere txostenean jasotako krokisaren arabera.

BIGARRENA. Construcciones Aburuza, S.L.ri ebazpen hau jakinaraztea.

II. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

4.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2023ko martxoaren 16tik 2023ko apirilaren 15a bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman da eta zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

5.- 2022KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkateak hitza eman dio Idazkari Kontu-hartzaileari, eta hark, hasteko, esan du 21/2003 foru-arauaren 49.3 artikuluan xedatutakoak eragin duela puntu hori. Horren arabera, "*Aurrekontu orokorren likidazioa onartzea toki-erakundeko lehendakariari dagokio, kontu-hartzailetzak txostena egin ondoren, eta osoko bilkurari jakinaraziko zaio*".

Era berean, azaldu du, artikulua beraren lehenengo paragrafoaren arabera, 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa martxoaren 31 baino lehen eginda egon behar zela. Hala ere, aurten ere pixkatxo bat atzeratu den arren, lehenengo urtean baino askoz gehiago gerturatu da legeak ezarritako datara.

2021eko ekainera arte, idazkari kontu-hartzaileen egoera oso ezegonkorra izan zen, eta horrek egoera kaotikoa ekarri zuen maila globalean udal-kudeaketaren eremu guztietan, besteak beste, kontabilitatean. Hala, 2021eko likidazio-espeditentea osatugabe zegoen, bi idazkari kontu-hartzaile desberdinek egindako bi txostenekin, likidazioa beren kabuz inoiz egin ez zuten kontabilitate-zerbitzuekin eta likidazioak islatzen zituen datuen egiazkotasunari buruzko zalantza ikaragarriekin.

2022an, aitzitik, 2021eko ekitaldiaren likidazioa berandu aurkeztu bazen ere, gutxienez udal-zerbitzuek eginikoa izan zen. Horri esker, duela urte asko arrastatutako akats ugari antzeman eta konpondu ahal izan ziren, datu zaharkitu asko eguneratu ziren, hurrengo ekitaldiko likidazioari begira zuzendu beharreko kontabilitatean akatsak antzeman ziren...

Aurten ere ildo beretik jarraitu du Udalak, eta berriro ere udal-zerbitzuek egiten ari dira 2022ko aurrekontuaren likidazioa, kanpoko enpresen laguntzarik gabe. Likidazio hau egiterakoan, lehenengo urteetatik arrastatutako beste hainbat akats antzeman eta konpontzeaz gain, beste hainbat aurrerapauso ematen ari dira, aipagarrienak: batetik, dirulaguntzen kontrolean, jarraipenean eta kontabilizazioan hobekuntza nabarmena, orain arte behar bezalako kudeaketa jasotzen ez zutenak. Hala, aurten, lehenengo aldiz, ekitaldian zehar jasotako dirulaguntza guztiak kontabilizatzen ari dira, eta, baita lehen aldiz ere, baliabide espezifiko afektatuak atxikitako finantzazioa duten gastuekin lotu dira kontabilitate-programan, bakoitza dagokion aldian, horien hasieratik likidazioa kalkulatu den egunera arte. Horrela, aurten, finantzazio atxikia duten gastuetako gehiegizko finantzaketagatiko doikuntza zehaztasun handiagoz kalkulatu ari da, eta, ondorioz, errealitatera hobeto egokitutako Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakina lortzen. Bestetik, 2023ko otsailean martxan jarri du Izfek inbentarioko programa berria, kontabilizazioarenarekin erlazionatuta, eta lehen aldiz txertatu ahal izan dira 2022ko zenbait ondasun inbentarioan, dagokien amortizazioarekin.

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak adierazitakoa azalduta, 2023ko apirilaren 5eko Alkatetzaren Dekretuaren berri eman da:

“...

DEKRETUA

Udal honen 2022(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2022(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2022-12-31n:		2.299.956,84
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		444.381,80
Aurrekontuko zordunak :	445.500,98	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.412,14	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	2.531,32	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		168.191,56
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	95.092,02	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	73.681,13	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	581,59	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		2.576.147,08
5.- Saldo kobragaitzak:		281.345,58
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		32.629,92
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		2.262.171,58

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	563.063,71
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	10.581,79
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	69.335,62
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-70.112,54
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	572.868,57

KREDITU GERAKINAK

--

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.482.084,14
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	48.166,18
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.530.250,32

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipaturako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Anoetan, 2023ko apirilaren 5ean.

...”.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

6.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

164. DEKRETUA	
2023.03.30	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
NAGORE AMUNDARAIN ZUBILLAGA	72496181C
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.774,19 €
Kontzeptua	
Nagore Amundarain Zubillagaren nomina: 2023ko martxoko nomina.	
Laburpena	
Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko martxoaren 30ean eragozpenezko txostena egin zuen adieraziz, bestek beste: “Goian jasotako soldataren zenbatekoa (2.774,19 eurokoa) % 100eko lanaldiari dagokio, langileak 2023ko martxoan egindakoa, Alkateak martxoaren 1eko dekretuz aginduta. Aitzitik, goian adierazi bezala, Alkatezaren dekretua erabat deuseza da, eta, gainera, ez da ebatzi Idazkaritza Kontu-hartzaile honek 2023ko martxoaren 27an emandako eragozpen etentzailea. Beraz, langileari legez legokiokeen ordainsaria 2.219,34 eurokoa izango litzateke. Hori guztia, kalterik egin gabe, bartetik, Zuzenbideak oro har arautzen duen bidegabeki aberasteko debekuari eta, bestetik, erabat deuseza den ebazpenaren arduradunei egotzi beharko litzaike erantzukizunari ere. 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko	

entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragrafoaren a) b) eta c) letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espediterearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte”.

165. DEKRETUA

2023.03.30

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.920,19 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2023ko martxoko nomina.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko martxoaren 30ean eragozpeneko txostena egin zuela adieraziz, besteak beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcaren urteetan zehar kontratatze “programa” baten barruan ezkatutako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.

166. DEKRETUA

2023.03.30

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.267,21 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2023ko martxoko nomina.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko martxoaren 30ean eragozpeneko txostena egin zuen adieraziz, besteak beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espediterearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.



MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

Ez dago.

GALDE-ERREGUAK

7.- GALDE-ERREGUAK.

Lehenengo, Rafael Uribarren zinegotziak galdetu du “Modestoenea” eremuaren salerosketaren gainean. Alkateak erantzun du salerosketa lehengo ostiralean gauzatu zela Tolosako notaritzan.

Bigarrenik, Rafael Uribarren zinegotziak galdetu du elizaren aurrekaldeko obraren gainean, zehazki, jakin nahi izan du ea Udalak obra hori sustatzeko eta egiten laguntzeko onartu zuen dirulaguntza izenduna aurrera eramateko elizarekin dagokion hitzarmena egin duen ala ez. Alkateak baietz erantzun dio, dagoeneko sinatu dela dirulaguntza izenduna eman ahal izateko hitzarmena, eta Elizak laster aurkeztuko duela obra egiteko lizentzia-eskaera.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 18:48etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino